

2. GARAIA

POSIBLE OTE DA?

Gaian sar zaitez
Testua uler ezazu
Obra luze bat irakur eta uler ezazu
Irakurtzen eta idazten treba zaitez
Ahoz adieraz ezazu
Idatz ezazu
Testu eta obren arteko loturak egin itzazu
Hiztegia
Testu gramatika
Olerkiak, kantuak eta erran-zaharrak






Fantastiko edo zientzia fikzio irakorrika-ren liburuen azalak eta laburpenak	Irudietan eta testuetan seinaleak hartuz, liburuen azalak eta laburpenak lotzea	30. or.
Telelabintoa - Mayi Pelot	Zientzia fikzio ipuin baten ulertzea Zatiak elkarri josiz	34. or.
Lurtarrak - Xabier Monasterio	Ezaugarri batzuen ezagutzea: ingurumen ezezaguna, giro irreal eta bitxia. Pertsonaien estatu mentalak ulertzea	36. or.
Alizia eta antzara jokoa - Lola Moral & Sergio Garcia	Fantastiko obra bat ulertzea	40. or.
	Irakurketa baltsan	
Lurtarrak kapituluaren sarrera batzuk	Lurtarren bizimoldeez eztabaidatzea	38. or.
?	?	
	Fantastiko eta zientzia fikzio genero literarioa sakontzea	40. or.
Telelabintoa, Lurtarrak, Alizia eta antzara jokoa ipuinen hiztegia	Ipuinak irakurri aitzin hiztegia ikastea	42. or.
	Fantastiko eta zientzia fikzio eleberrien ezaugarriak ezagutzea	43. or.
Ikaste buruzko olerkiak, kantuak eta erran zaharrak		44. or.








Testuan sar zaitez

1 Gaian sar zaitez

Orrialde bikoitz honetako liburu azalak, ondoko orrialde bikoitzeko laburpen egokiekin lot itzazu. Horren egiteko hartu dituzun seinaleak eman beharko dituzu (izenburuaz gain).





Ipuinen laburpenak

A - Nafarroako Baldorba bailaran gertatzen den bi lagunen arteko istorio honi esker, zure inguruan gertatzen diren gauzak beste gisa batez ikusiko dituzu beharbada. Oihanean etxola ttipi bat dute Amaiak eta Enekok. Egun batez, ezustean, bola bat aurkituko dute, hiruki gorri bat duen bola urdin eder bat. Gertakizun horrek Amaia eta Enekoren bizia eta haien ingurukoena azpikoz gora jarriko du, eta segur aski zurea ere bai. Elkar ulertzeaz eta errespetuaz da liburua.

B - Arratsalde baketsu batez, soinu berri bat entzun zen Zarauzko Santa Barbara mendian, eta geroxeago argi dirdiratsu itsugarri bat jaitsi zen ortzitik mendi gainera. Horrelaxe heldu ziren martetarrak Euskal Herrira OHE (objektu hegalaria ezezagun) batean. Euskaldun bat eraman nahi zuten Martera.

C - Kaixo! Txano dut izena, eta anaia biki bat dut: Oscar. Ikusi ote duzu inoiz meteorito bat zerutik erortzen? Ba, guk bai... Uda hastapenean, ibilaldi baten egiten ari ginela, halako batean suzko bola erraldoi batek zeharkatu zuen zerua gure begien aitzinean, eta oihanean erori zen! Bai, badakit hobe izanen gurela berehala handik urruntzea, baina ez, gu meteoritoaren bila abiatu ginen. Eta aurkitu genuen! Harri berde bitxi bat zen. Haren distiraren gibelean gorderik zegoen sekretuak betiko aldatu zuen gure bizia. Etorri nahi duzu gurekin sekretu horren argitzera?

D - Egun batez, etxetik ateratzearan, neskatala batek robot ttipia ikusi zuen etxearen horma ondoan, asperturik bezala. Hori iduriktu zitzaion neskatalari, robota kolpeka ari baitzen zola-ren kontra, metalezko ointxoaz, emeki eta erritmikoki, espaloiko harlauzen gainean. "Galdua naiz" esan zuen txistuaren pareko aho-tsaz, eta neskatalak ez zuen ezer esan, hura ez baitzen oso gauza normala. Egia erran neskatalak egundaino ez zuen robotik ikusi.

E - Izaki zibernetikoak, robotak, androideak, makinak... zertan desberdintzen dira gugandik? Ardi elektronikoz amets egiten ote dute? Ba ote dakite maitasuna zer den? Eta gorrotoa? Eta beldurra? Galdera horiei erantzuten dieten film batzuen interpretazio libreak irakurriko dituzu liburu honetan: Terminator, Blade Runner, Westworld eta Alien.

F - Isolaturik dagoen umezurtzen etxe batean sartu berri da Jon. Ez du familiarik, ezta beste nehor ere. Izaera inkonformista du, eta horregatik talka egingo du tokiko harrapatzekin eta eskolako zuzendariarekin. Gau batez, Mirkak gidatu espazio-ontzi bat agertzen da. Mirkak duela mende asko Lurretik hurbil desagertu zen espedizio estralurtar bateko kideak aurkitu behar ditu.

Jonek ez du umezurztegitik ihes egiteko aukera galduko, eta Mirka konbentzituko du bera ere misioko kide izateko.

Horiek horrela, abentura berri batean murgilduko dira: besteak beste, ozeano Atlantikoan hondoratu galeoi espainiar baten hondakinak esploratuko dituzte, Erdialdeko Amerikako oihaneko aztarnategi inka batean sartuko dira edota espazioko mugaldean barrena bidaiatuko dira.

G - Bazen ehiztari bat oso tira-tzailea, tiro eta tiro ibiltzen zena.

Txakur bat ere bazen oso zaunkaria, uau eta uau isiltzen ez zena.

Halako batean, txakur zaunkariak letagin zorrotzeko basurde handi-handi batekin topo egin zuen buruz buru.

Eta beldur haren ondorioz, gauza harrigarriak gertatu ziren handik aitzina.

H - "Alizia XIX. Mendeko Ingalaterran bizi den neska kokina da. Egun batez, erreka bazterrean aspertzen ari delarik, sakelako ordulari bat duen untxi bat ikusi duela iduritu zaio. Haren ondotik abiatzea deliberatu du. Eta orduan...

Untxi horren ziloan sartuz —eta abentura zenbaiten ondotik— lurralde miresgarrira heldu da. Han izaki bitxiak ezagutu ditu: txapelgile eroa, martxoko erbia, beldar nargile erretzailea... Baina lurralde miresgarriko biztanle bitxiena hango buruzagia da: bihotzetako erregina."

I - Bare erregeak eta beste preso lanjeros batek Mikrongo Segurtasun Handiko Izarrrarteko Espetxetik ihes egin dute. Ontzi bat ebatsi, galaxia zeharkatu, eta Lurrera buruz doaz. Lurrean, Superpatatari eginkizun berri bat eman diote: Mastekatzaille harrapatzea. Zaila izanen zaio, haatik. Alabaina, Mastekatzaillek metalezko baraila birrintzaile berri-berria du, izigarri ahaltsua, eta, iduriz, nehon den patatarik ausartena hozkatuz estreinatu nahi du. Hala ere, hori guzia abenturaren hasiera baino ez da ...

J - Anartz eta Aioraren etxeko egongelan bada tapiz zaharkitu bat, eta amak aita igorri du berriaren eroatera. Anartzek eta Aiorak aita lagundu dute saltokira. Baina tapiza saltegian beti bada arriskua haietarik bat tapiz hegalaria izateko. Halako bat aurkitu dute Anartz eta Aiorak. Jakina denez, tapiz hegalaria Ekialdekoak dira, eta Anartz eta Aiora haren gainean jarri direlarik... magia gertatu da.

Telelaberintoa

1 New York-en hemeretzigarren astea hasia zen. Argi zirrintan piztu egin zen Anaizen ohea. Gela argitzean, boz ezti batek «Egun on. Gaur 2050ko hemeretzigarren astearen lehena da. Egun on. Gaur 2050ko hemeretzigarren astearen lehena da» Anaiz jaiki arte errepikatu zuen. Orduan bozak: «Sigmak zuri egun on bat» erran eta isildu; leiho-ohola
5 isilki lerratu, argi artifiziale itzali.

Kanpoan egunsentia. Building arteko pasagiei esker, karriketarik ez zen zeru izpirik ere ikusten. Plazarik ez. Zuhaitzik ez. Hiria, dena karrika zen. Ez hain tristea, buildingak era eta kolore guzietakoak baitziren. Aireko batetik begiratzuz, aldiz, karrikak eta building multxo baten teilatuek letra greko baten era bazuten, E (sigma) handi batena. Han zelakotz hiriko
10 Gogoaren Tenplua, Sigma S.A.-ren laborategi eta bulego handiak. Han U.S.W. (Munduko Estatu Batuetako)etako ordenagailu nagusiak. Bai eta Sigmatar batzuen bizilekuak ere. Han bizi zen Etxeberry'tar Anaiz.

Lehen asteko goiz hartan, neskak, sukaldara sartu eta gosaldut baina lehen hormabista piztu zuen. Ez zuten batere harritu goizeko berriek: aireko panslabitar batzuk Indiako
15 zeruan atzemanak zirela... U.S.W.etako lehendakariak ez zuela Irandarrik Perpinyàren ondoan gehiago onartuko... hots, eguneroko ogia. Sukalde berdeko horma bakoitzean, makina bat; hormarik luzeenean (ateari begiratzeko zionean) «bazkalemaileko» argitxo eta atzolak* eskuinekoan, atetxo zehargi bat, labe batena iduri: hura automatikoki ireki eta, jaki beroak metalezko azpiletan handik ateratzen; urrunago, asteko janarien hautatzeko
20 eta programatzeko klabera ttipia; ezkerreko horman, edariemailea, bere klabera eta leihatilekin. Atzol bakoitza edari baten izenarekin; makina hark azukrea ere ematen ahal zuen. Atea zegoen horman, hyperizozkutxa automatikoa. Anaizek 3 atzol* hunkitu eta, kafesne beroa leihatilatik paperontzi batean ateratu zen. Dena hormetan zelakotz, gelak mublerik ez, mahai bat eta aulki bat salbu. Anaizek mahaiko atzol* bat hunkitu eta ireki zen
25 mahaigaina, metalezko azpil bat ogi txigortu eta gurinez estalia barnetik igan. Nahiz eta bizileku horrek Anaizi eraberrikoa iduri, egongela klasikoa zen: jaki eta edariak sukaldetik eskuz ekarri behar. Anaizi laket zitzaion New Yorken atzemandako lanak eskaintzen zion bizi erraz hori, baina min ematen zion zeru gabeziak. 3. Mundu Gerlak odolusturiko Europa zaharrean sortua zen eta, bere herrian, ez zuen bizi bera ukanen. Haren aitaren etxean (Esqwal Herryko herri guzietan bezala) janaria mubletan oraino ezartzen zuten,
30 ez hormetan, bai eta kazolak erabiltzen. Esqwal Herryan egon balitz... baina urrikiak utzi

behar. «Dena den, Sigma gizartearen arkigrafa edo telidazkaria lan leku bat atzemateko xantza ukan dut. Agian lana Byorn'en laster izanen dut». Egongelatik pasatzean, telegela ttipiko inprimagailuari behatu zion: mezurik ez. Gogotik abiatu zen lanera.

Mayi Pelot

*Atzol: tekla



Testua uler ezazu

- 1 Telelabirintoa ipuinaren testuingurua ezagutzeko, lehen bi paragrafo irakur itzazu “Zatiak elkarri josiz” jarduera plantan emanez.
- 2 Hirugarren paragrafoa irakur ezazu “... jaki eta edariak sukaldetik eskuz ekarri behar” arte.
 - a) Anaizen bizilekua marraz ezazu. Testuko hitzak erabil itzazu legendaren idazteko.
 - b) Anaizen aitaren bizilekuarekin konpara ezazu.

Lurtarrak

Lurrari buruzko txostena

1 “Txosten honetan nire azken ikerlanaren berri eman nahi dut. UZIE Unibertsoko Zibilizazioak Ikertzeko Elkarteak eskatuta, azken aspaldion Lurra izeneko planeta ikertzen ibili naiz, eta orain ikerlan hori aurkezteko ordua heldu da.

5 Hala ere, ikerlanaren datuak ematen hasi baino lehen, lan honetaz dauzkadan kezka batzuk agertu nahi ditut UZIEko arduradunen aurrean.

Jakina denez, UZIEren helburua Unibertsoan dauden zibilizazio guztiak ikertzea da; baita atzeratuenak ere. Ondo dago hori; ez dut nik ezer esango horren aurka. Benetan jakin
10 nahi badugu zein den Unibertsoaren egoera, mota guztietako zibilizazioak ikertu behar ditugu, noski.

Dena den, lan handia daukagu egiteko. Milaka eta milaka galaxia aztertu behar ditugu oraindik, eta beti Lurra eta antzeko sasi-zibilizazioak* ikertzen ibiltzen bagara, ez dugu denbora galdu besterik egingo.

15 Gainera, ni eskarmentu handiko ikertzailea naiz eta orain arte goi-mailako zibilizazioak ikertzen aritu naiz. Horregatik, ez dut ulertzen zergatik bidali nauzuen halako toki kaskar batera.

Nire ustez, hobe izango zen lan hau ikertzaile gazte bati edo bekadun bati ematea. Haiek askoz gauza gehiago ikasiko zuten, nik baino.

20 Bestalde, lanerako metodoaz ere zerbait esan nahi dut. Normalean, gure ikerlanetan garrantzi handia ematen diogu zibilizazioa bakoitzaren maila teknologikoa aztertzeari. Lurraren kasuan, ordea, ez zuen merezi hori egitea, bertakoek oso oinarrizko teknologia daukatelako.

Adibide bezala, esango dut oraingoz ozta-ozta lortu dutela beren satellite bakarra, Ilargia,
25 zapaltzea. Eta Lurretik Ilargira 384 000 (hirurehun eta laurogeita lau mila) kilometro baino ez daude...

Horregatik, interesgarriagoa iruditu zait bertako izaki nagusiak, lurtarrak ikertzea. Lurtarrak benetan izaki bitxi eta aldrebesak dira eta xeblekeria piloa egiten dute. Egia esan, ezinezkoa da haien bizimodua eta portaera ulertzea, logika guztietatik kanpo bizi direlako.

Ondo pentsatuta, ordea, gure ikertzaile gazteei Lurra planeta ezagutzea komeni zaiela uste dut, anti-zibilizazioa zer den ikasteko.

Eta horretan, iker lan honek zerbaitetarako balio izango dut...”



Xabier Monasterio

Kapituluen sarrera batzuk

V. Bizilekuak

“Lurtarrak ezin dira bakarka bizi. Espezie ahulegia dira horretarako. Horregatik, elkarrekin bizi dira, taldetan antolatuta. Lurtar gehienak leku finkoetan bizi dira, elkarren gainean pilatuta. Arrazoia oso sinplea da: Lurrean lur gutxi egoteaz gain, pertsonak bizitzeko moduko lekuak oso gutxi dira. Beste izaki bizidunak -landareak eta animaliak- habitat naturaletan bizi dira. Lurtarrek, ordrea, natura apurtzen dute, beren bizilekuak egiteko. Oso erraza da lurtarren habitat artifizial horiek bereiztea: porlanez eginda daude eta grisak eta zikinak dira.”

VI. Garraiobideak

“Lurtarrak oinez ibiltzen dira. Baina oso astiro ibiltzen dira -orduko seiren bat kilometro baino ez dituzte egiten!— eta, gainera, berehala nekatzen dira. Horregatik, arinago ibiltzeko tramankuluak asmatzen saiatu dira betei. Lehenik, gurpila asmatu zuten. Milaka eta milaka urte behar izan zuten horretarako, baina historia liburu guztietan aurrerapen handia izan zela diote lurtarrek. Orain dela bostehun urte, Leonardo da Vinci lurtar jakintsuak makina bat asmatu zuen, lurtarrak azkarrago ibiltzeko, baina inork ez zion kasurik egin, eta lurtarrek gurpila bultzatzen jarraitu zuten. Lehen harrizko gurpilak eta orain gomazkoak. Gauzak ez dira hainbeste aldatu ezta?”

VII. Dirua

“Zaila da sinesten, baina Lurtarrek maiteago dituzte gauzak, pertsonak baino. Gauza bat daukatenean, handiago bat nahi dute; eta hura daukatenean, handiena, onena eta garestiena nahi dute. Erosi da haien gustuko aditza, beti ahoetan daukatena:” Hauxe erosiko dut, bestea erosiko dut”. Gauzak erosteko, dirua erabiltzen dute, hau da, trukerako metal eta paper batzuk. Eta lurtarrek edozer egiten dute, metal eta paper horiek lortzeagatik. Egia esan, lurtarrek erosten dituzten gauzek ez daukate batere baliorik, eta trukerako metalek eta paperek ere ez, baina haiek ederki pasatzen dute gero eta gauza gehiago edukitzeko jolas horretan.”

IX. Aisialdia

“Lehen esan dudan bezala, lurtarrek lotan eta lanean ematen dituzte eguneko ordu gehienak. Eta libre dauden orduetan ez dira oso libre egoten, ondoko gauza hauek egin behar dituztelako, besteak beste: laneko joan-etorria egin, erosketak egin, jatekoa prestatu, etxea garbitu, eta abar. Beraz, oso gutxi dira benetan libre egoten diren orduak. Lurtar gutxi batzuek denbora-pasa interesgarriak daukate ordu horietarako —liburuak irakurtzea edo hizkuntzak ikastea, adibidez—, baina lurtar gehienek hiru gauza aspergarri hauek egiten dituzte: telebista ikustea, alkohola edatea eta futbola ikustea.”

XII. Ingurumena

“Lurtarrek bizitoki bakarra daukate: Lurra. Handik kanpora, ezin dira beste inon bizi, haien teknologia oso kaskarra baita. Beraz, normalena beren bizitokia ondo zaintzea izango litzateke, baina lurtarrek ez dakite normalak izaten eta, hori egin beharrean, kalte besterik ez diote egiten Lurrari. Lurtarrek aurrerabidea asmatu dute. Haren izenean, era guztietako teknika, industria eta prozesu kimikoak jarri dituzte martxan, Lurra apurka-apurka hondatzen ari direnak. Martxa honetan, izaki bizidunetan etorkizuna arriskuan egon daiteke Lurrean. Hori ikusita, lurtar zentzudun batzuk, aurrerabidea barik, “atzerabidea” bultzatu behar dela esaten hasi dira!”




Testua uler ezazu

- 1 Estralurtar batek Lurrari buruzko txosten bat idatzi die lurtarrei. Txosten zatiak nahasi ditugure adimenaren akuilatze Ordenan ezar itzazu.
- 2 Lurrari buruzko txostena irakurtzen treba zaitez **irakurketa baltsan** jardueraren bidez.
- 3 Estralurtarrak umorea badu, berdin ironia ere. Testuan ironia erakusten duten seinaleak bil itzazu.
- 4 Azkenean, estralurtarraren lanak balioko du estralurtar gazteek ikas dezaten Lurreko zibilizazioa anti-zibilizazioa dela. Lurtarren bizimoldea eta jokamoldea ezinezkoak direla dio. Zure ustez, estralurtar bat zertaz harrituko litzateke gure planetara heltzean? Bakarka adibide batzuk zerrenda itzazu eta ondotik lagunekin parteka.



Ahoz adieraz ezazu

- 5 8. orrialdean, estralurtarrak lurtarren bizimoldea umorez eta ironiaz azaltzen du. Zer diozu zuk horretaz?
 - a) Bakarka, hautatu gai batzuei buruzko argudioak idatz itzazu.
 - b) Taldeka eztabaida ezazue. Xabier Monasteriok erabiltzen dituen testu antolatzailerak erabil itzazu argumentatzean.





Obren arteko loturak egin itzazu

Alizia irudimen handiko neska da. Jolasik sinpleena abentura handien bizitzeko aitzakia bihurtzen du. Haren lagunak, ordea, oso klasikoak dira, eta nahiago dute beren ohiturak ez aldatu. Egun batez, antzara-joko partida bat hasiko dute. Ordur geroz, dena aldatuko da. Parkea ANTZARA JOKO handi eta izigarria bilakatuko da, eta Aliziak buru egin beharko dio probari. Baina oraingoan ez da joko soila izanen...



1 Alizia eta antzara-jokoa liburuaren 4. orrialdea irakur ezazu. Zure ustez, Aliziak zer gainditu beharko luke probari buru egiteko? Binaka, proba batzuk asma itzazue.

2 Alizia eta antzara-jokoa komikia irakurri aitzin, antzara-jokoaren arauak gogora itzazue.

a) Lehenik, binaka, arauak ahoz azaliezazkiozue elkarri.

b) Bakarka, proposatu arauak irakur itzazu.


c) Josta zaitezket!



3 Antzara-jokoaren bertsio anitz dira. 2. galderan irakurri arauekin konparatuz, animalien antzara-jokoan zer da berdina eta zer desberdina?



- 4 Alizia eta antzara jokoa liburuaren 5. orrialdean marrazki hau ageri da. 2. galderan irakurri arauarekin konparatuz:
- Ikusten dituzun eta
 - eskas diren antzara jokoen elementuak zerrenda itzazu.




- 5 6. orrialdean marrazki hau ageri da.

- Hiru antzara horiek nor ote dira?
- Zergatik kexu ote dira Aliziaren kontra?
- Pertsonaien desafioa zer ote da?



- 6 Alizia eta antzara jokoa komikian, mahai-jokoetan edo antzara jokoen erabiltzen diren erran-moldeak badira. Erran-molde horietarik batzuk bil itzazu eta Aliziaren kokapena eta leku aldatzeak azal itzazu.
- 7 20. orrialdean, antzaratzarrak Aliziari irabazteko aholku bat ematen dio. Zer aholku ematen ote dio? Alizia aholkuari jarraiki ote zaio? Zure erantzuna justifikatu ezazu.




- 8 4. eta 32. orrialdeak konpara itzazu. Alizia eta antzara jokoa liburu fantastikoa dela adierazten duten seinaleak aurki itzazu.



Hizkuntza azter ezazu

Hiztegia

Telelaberintoa



argi-zirrinda,
egunsentia

Lerratu:

Izpia: eguzkiaren izpia

Horma: murrua

Aireko: hegazkina

Eguneroko ogia: betiko

berriak, deus berri

Atzol: tekla


Zehargi:

Jaki:

Urriki: damu



azpil



lehio-ohola

Lurtarrak

Txosten: gai bati buruzko azalpen idatzia

Azken aspaldion: azken denbora honetan

Datuak: informazioak

Atzeratu: gibelatu

Dena den: edozein modutan ere, hala ere, nolanahi ere

Sasizibilizazioa: azpi-zibilizazioa

Eskarmentu: esperientzia

Kaskar: ona ez dena

Bekadun: lan baten egiteko diruketa eskuratu duena

Ordea: baina

Ozta-ozta: doi-doia

Izaki: bizidun (animaliak eta landareak)

Aldrebesa:traketsa

Xelebrekeria: bitxikeria

Piloa egin: metatu

Behintzat: gutienez, bederen

Alizia eta antzara jokoa Mahai-jokoan aritzeko

Joko taula - Abiatzea - Helmuga - Laukia/laukitxo Jokaldia - Tantoa - Dadoa

“Antzara jokoa jostatu nahi duzu(e)?”

“Zure aldi, zure txanda.” - “Zure aldia utz!”

“Aitzina!” - “Gibelera joan behar duzu.” “Lauki baten gainetik jauzi egizu.”

“Xikanatzen duzu!”

“Ez zaitetz galtzaile txarra izan.” - “Zorte txarra!” - “Xantzarik ez” -

Alizia eta antzara jokoa komikian bildu erran moldeen arabera mahai-jokoan aritzeko hiztegia osatzen ahal da:

- Antzaratik antzara, ni berriz jokora.

- Zubitik zubi noa, eta urak zalu narama!

- Ostatuan gertatuz geroz, itzuli batez pausatuko naiz/zara.

- Puztuan gertatuz geroz, beste jokalaria bat laukitxo berera heldu arte egon behar naiz/zara.

- Beste jokalaria batek libratu bainau, segitzen dut/duzu eta laukitxo berera heldu dena beha egon beharko da.

- Labirintotik 30era noa/zoaz.

- Presondegian gertatuz geroz, hiru itzuliz jokatu gabe egon behar naiz/zara.

- Buru hezurreen gertatuz geroz, hastapeneko laukitxora itzuli behar naiz/zara, eta dena berriz hasi behar dut/duzu!



Testu gramatika

Fantastikoa eta zientzia fikzioa, narrazio saileko literatura generoak dira.

Eleberria, eleberri laburra, olerkia, alegia edo antzerkia forman izan daitezke.

	Fantastikoa	Zientzia-fikzioa
Pertsonaiak	Zalduna, ogroa, haur-jalea, herensugea, izaki bitxiak... Pertsonaiek ahalmen bereziak dituzte.	Jendeak, jende itxurako robot edo izakiak edo espazioko izakiak.
Tokiak	Herrialdea xeheki deskribatua da, baina asmatua (eskualde, herrixka, oihan...).	Espazioan, espazio ontzi batean edo beste planeta batean.
Denbora	Aspaldikoa, ... izan baino lehenagokoa,-(r)en erregetza denboran... Argiki errana baino asmatua.	Usu etorkizunean. Data maiz zehaztua da (2049).
Ekintzak	Asmatuak baino egiazkoak izan litezkeenak (herrialdearen, erlijioaren, boterearen edo diruaren aldeko gerla).	Beti irudimenezkoa eta sekulan ez errealista.
Gertakariak	Egiazkoak izan litezkeen elementuetan oinarrituak baino asmakuntza doi batekin (bi klanen arteko gerlan zuhaitzak partaide, herensuge bat heldu da, ahalmen bati esker herensugea garai daiteke...).	Elementu futurista eta irrealistetan oinarrituak (planeta berri baten aurkitzea, beste unibertso baten aurkitzea, galaxien arteko gerla...).
Istorioaren bukaera	Batzuetan ongi bukatzen da, besteetan gaizki. Ongiak ez du beti osoki irabazten.	Batzuetan ongi bukatzen da, besteetan gaizki. Usu mundu bat, planeta bat edo arraza bat irabazle da, eta beste bat suntsitua.
Xedea	Libertitzea, denen irudimenaren akuilatzea.	Libertitzea, gertakari zientifiko baten esplikatzea entseatzea, izan litekeen zerbaiti buruz gogoetaraktea.

Argumentatzea

Argumentu testuetan, autoreak defenditzen du gai filosofiko, politiko, zientifiko edo sozial batez duen iritzia.

Eztabaidetan, parte hartzaileak konbentzitzea edo haien ihardukiaraztea da helburua, argumentuak eta adibideak azalduz. Aipatzen den gaian zentraturik egon behar da. Eztabaidaren egituratzeko, Lurtarrak testuan bilduak diren hitzak erabil ditzakezu:

Hala ere
Jakina denez
Dena den

Gainera
Nere ustez
Bestalde

Adibide bezala
Ondo pentsatuta, ordea
Eta horretan

Olerkiak eta kantuak

Kilikon

Izarrak ditu maindire,
Eta ilargia etxe,
Saltoka gora eta behera
Hau bai jolas parkea!

Eo, eo, ongi etorriak denok
Eo, eo, ene etxea hemen dago
Eo, eo, goxo-goxo ta bero
Kilikon astonauta naiz
Eo, eo, eo.

Mundutik ihesi nabil
Harresi zorrotzetatik
Alde egin behar nuen
Urrun malkoetatik.

Eo, eo, ongi etorriak denok
Eo, eo, ene etxea hemen dago
Eo, eo, goxo-goxo ta bero
Kilikon astonauta naiz
Eo, eo, eo.
Kilikon astonauta naiz
Eo, eo, eo.

Izarrak ditu maindire,
Eta ilargia etxe,
Saltoka gora eta behera
Hau bai jolas parkea!

Ilargia

Bart arratsean leihotik
sartu zait ilargia,
eta bertatik bertara
ikusi diot aurpegia:

Alde bat iluna
bestea argia,
eta begiratua
gardena eta garbia.

Orain gauero igo nahi dut ilargira
Handik jartzeko lurrari begira.
Lurrera handik, handik lurrera,
Egunsentiko eguzki xirriparekin batera.

argitik zintzilik zarramiloan
zirrin-zarran, zirrin-zarran
nahi dut ibili,
zahartzaroari begiratu
eta haurtzaroa ikusi.


Ilargian zankoloka
nahi dut mundua zeharkatu,
ametsetan ari naizela
nahi dut amestu.

Antton Kazabon
Haurrentzako euskal poesiaren antologia

Igarkizunak

Zer dela eta zer dela
Beti aurrerantz doana
Eta lerdoen eskutan
Beldurgarria dena
Eta jakintsuen eskutan
Onuragarria dena?

Igarkizunak Xabier Etxaniz



Zonbiak

Aaaaaaaaaa,
Dio bata.

Eeeeeeeeee,
Beste batek.

lllllllllllll,
Horrek intziri.

Oooooooooo,
Besteak orro.

Uuuuuuuu,
Best hark ulu.

Halako aspergarri mortalak
Dira zonbien biltzarrak!

Joemak eta polasak - Iñigo Astiz



Mamua

Mamu bat dabil
jira eta bira
etxeko egongelan.

Bere izara zuria
jira eta bira
etengabe hegan.

Astuna da gero
jira eta bira
astuna benetan.

Haren atzetik nabil
jira eta bira
eta bera ihesean.



Ikasiko du bai
jira eta bira
garbigailu barnean!

Joemak eta polasak - Iñigo Astiz

Xirula Mirula

Xlrrixti
Mlrrixti
GErrenian
PLAT
OllO
ZOpa
Klkiri
SAla
Urrup
Edan
Edo
KLIK
Ikilimiliklik!

Xirula Mirula
Pierre Duny-Pétré

Haikuak

Arrats apala
arimaren freskotasuna
ortziaren ondotik

Haurtxoaren
erhiaren puntan
ortzadarra

Haikuak - Jean Lissar - ZTK

